

HAR EZAZU PARTE ZURE SEGURTASUNEAN

Osakidetzan paziente gisa zure segurtasuna hobetzen laguntzeko eskatzen dizugu, **hiru urrats xume** hauek emanda:

1 Identifikatu zaitez, eta egiaztatu zure datuak

- Osasun-zentro batera joaten zarenean identifikatzeko erabili beti **NAN** eta **OTI** (osasun txartel indibiduala).
- Egiaztatu, ematen dizuten dokumentazioan, alta-txostenak, proba osagarriak egiteko bolanteak, eta abarretan dauden datuak bat datozela zure datu pertsonalekin (**izena, 2 abizen eta jaiotza-data**).
- Ospitalean, egiaztatu identifikazio-eskumuturrekoan dauden datuak zeureak direla: **izena, 2 abizen eta jaiotza-data**. Egonaldian eskumuturrekoa galdu edo hondatzen bazaizu, eskatu beste bat eta egiaztatu berriro zure datuak..

3 Garbitu itzazu eskuak

Eskuen higiena gaixotasunak kutsatzea prebenitzeko dauden neurri nagusietakoa da. Jakin behar duzu noiz eta nola garbitu eskuak.

- Noiz?**
 - Jan aurretik edo elikagaiak manipulatu aurretik
 - Komunera joan ondoren
 - Zintz, doministiku edo eztula egin ondoren
 - Paziente batekin kontaktuan egon aurretik eta gero
 - ... eta eskuak zikin daukazun guztietan

2 Ezagutu zure tratamendua

- Ziurtatu agindu dizuten medikazioa hartzen ari zarela, eta kasu egin jarraibideei eguneroko dosia hartzeko eta tratamenduaren iraupena jakiteko.
- Izan beti eskura zure **Tratamendu-orria** eta eskatu berria medikazioa aldatzen dizuten bakoitzean.
- Ez zaitez zalantzan geratu medikazioari dagokionez. Galdetu zure osasun-zentroan, farmazian edo Osasun Aholkuaren telefonoan (**900 20 30 50**).
- Alergiarik** baldin baduzu, abisatu beti arreta ematen dizuten profesionali.

- Nola?** Ur eta xaboiak garbituta, 6 urrats hauek emanda:



Esku-ahur bat bestearen kontra



Esku-ahurra eskugainaren kontra



Bi esku-ahurrak, hatzak elkar lotuta



Hatz gainak esku-ahurraren kontra



Biratu hatz lodia



Hatz puntak

Iturria: OME

HAR EZAZU PARTE ZURE SEGURTASUNEAN

3 URRATS HAUEKIN



1 Identifikatu zaitez, eta egiaztatu zure datuak
Izena, bi abizen, jaiotza-data!

Ezagutu zure tratamendua
Zure Tratamendu-orria eskura eduki ezazu beti!



2



3 Garbitu itzazu eskuak
Infekzioak saihestuko dituzu!